

IRAKASKUNTZA GIDA:

ERIZAINNTZA OTORRINOLARINGOLOGIKOA



Irakasleak:

Caballero Sanchez, Silvia
Fraile Bermudez, Ana Belen
García Aspiazu, Ziortza
Sanchez Fernandez, Clara Eugenia
Unanue Arza, Saloa

Helburuak:

Erizaintza otorrinolaringologikoa ikastaroaren helburu nagusia ikaslea sudur, belarri, faringe eta laringean agertu daitezkeen asaldura ezberdinak ulertzea eta haietan erizaintzako arreta egokia emateko gai izatea da.

Ikaslea gai izango da aztertutako gaixotasuna ulertzeko eta interpretatzeko.

Gaitasunak:

1. Sudur, belarri, faringe eta laringean gertatzen diren prozesu fisiopatologikoak eta haien sintomak ezagutzea, baita osasun eta gaixotasun egoerak zehazten dituzten arrisku faktoreak ere.
2. Balorazioan jasotako datuak aztertzea eta arazoei lehentasuna ematea. Erizaintza-zainketetarako teknikak eta prozedurak ezagutzea.

Aurrebaldintzak:

Ikastaro honi etekin handiena atera ahal izateko komenigarria da sudur, belarri, laringe eta faringeko anatomia eta fisiologia birpasatzea.

Deskribapena:

Erizaintza otorrinolaringologikoak sudur, belarri, faringe eta laringean agertzen diren ohiko asalduren fisiopatologia eta klinika aztertzen ditu, baita horietan agertzen diren erizaintzako zainketak ere.

Gai-zerrenda:

1. Gaia: Belarriaren anatomia. Audiologia orokorra
 - Belarriaren anatomia
 - Belarriaren funtzioak
 - Otorrinolaringologiako kontzeptu orokorrak
 - Otorrinolaringologiako sintomatologia orokorra
2. Gaia: Kanpoko belarriaren patologia
 - Kanpoko belarriaren patologia: malformazioak, tumoreak, kanpoko entzumen hodiaren patologia eta ezko tapoiak, gorputz arraroak
 - Kanpoko belarriaren erizaintza zainketak: oinarriak, garbiketa, tanten instilazikoak, injekzioak, kauterizazioa, sendaketak, eustakio-tronparen egiten diren akzioak.
3. Gaia: Erdiko belarriaren patologia
 - Gorreriak
 - Hipoakusiak
 - Otoesklerosis-a
 - Trauma akustikoak
 - Erdiko belarriaren hanturak
 - Erdiko belarriaren erizaintza zainketak
4. Gaia: Barneko belarriaren patologia
 - Sindrome bertiginosoa
 - Meniere gaixotasuna
 - Froga bestibularrak
5. Gaia: Erizaintza jarduerak. Belarriaren kirurgia
 - Belarriaren kirurgia: estapedektomia, tinapanozentesis-a, tinpanoplastia, mastoidektomia
 - Ebakuntza osteko erizaintza zainketak
6. Gaia: Sudurra
 - Sudurra
 - Esplorazio prozedurak: aurreko rinoskopia, atzeko rinoskopia, endoskopia, esplorazio erradiologikoa, rinometria, usaimen froga
 - Sudurraren arazoak: sudur buxadurak, rinorreak, usaimen aldakuntzak, gorputz arrotzak, sudur hausturak, sudur malformazioak
7. Gaia: Sudurraren patologia eta ebakuntza. Listu guruinetako patologia
 - Errinitisak
 - Senoetako patologia: poliposis-a, sinusitis-a, tumoreak.
 - Sudurraren tumoreak
 - Sudurraren ebakuntza: rinoplastia eta erizaintza zainketak
 - Listu guruinetako patologia: parotiditisak eta tumoreak
8. Gaia: Faringea eta faringearen patologia
 - Faringearen anatomia
 - Faringearen patologia: faringitisak, amigdalitisak, adenoiditisak
 - Faringearen konplikazioak: abszesu periamigdalinoa
 - Faringearen tumoreak

9. Laringea eta laringearen patologia

- Laringearen anatomia
- Laringearen esplorazio prozedurak
- Laringearen patologia: laringitisak, gorputz arraroak
- Traqueotomiak
- Laringearen tumoreak: laringektomiak

Metodologia:

Atal honen helburua ikaslea ikaskuntza prozesuan zehar gidatzea da, horretarako ondoren zehazten den metodologia erabiltzea gomendatzen da.

Irakasgai honetan metodologia UPV_EHUko OCW plataforman eskuragarri dauden materialak ikastea eta ulertzea oinarritzen da. Horretarako material hauetaz gain bibliografia osagarria aholkatzen da. Aipatutako materialaz gain ikastaroan bideoak ere daude eskuragarri. Bideo hauek material teorikoan dagoen informazioa argitzeko erabiliko da, beraz, guztiz gomendagarria da bideo hauek ikustea ikastaroari probetxua atera ahal izateko.

Ikasleak material teorikoa irakurri eta zalantzak ikastaroan aholkatutako bibliografia kontsultatuz argitzea gomendatzen da. Ondoren eduki hori ikastea da beharrezkoa.

Ikaskuntza prozesuan zehar ikasleak gaitasunak lortzen ari den neurtu ahal izateko eduki teorikoarekin erlazionatutako ariketak eta praktikak egin ahal izango ditu (praktikak, ariketak eta ekintzak atalean). Gomendagarria izango litzateke ariketa eta praktika horiek materiala kontsultatu gabe egitea, hori baita ezagutza neurtzeko modu egokiena. Ariketa eta praktika horien erantzunak ikastaroan eskuragarri egongo dira, ikasleak emaitzak autoebalatu ahal izateko. Ikasleak gaizki egindako edo erantzun ez dituen galderen erantzunak aztertzea aholkatzen da, eta ez bakarrik zuzen edo gaizki dauden egiaztatzea. Horretaz gain ikasleak kasu klinikoak ere egin ditzake, ikasitakoa praktikan jarri ahal izateko.

Prozesu hau ikastaroa osatzen duten 9 gaiekin egin ondoren ikaslea gai izango da azken ebaluaziorako proposatzen den proba egiteko (Autoebaluazio prozedurak, A eredia). Proba hori gainditu ahal izateko galderen %60a zuzen erantzun beharko dira.

Ikasleak proba gaindituko ez balu edukiak birpasatzea eta ariketak eta praktikak berriro egitea aholkatzen da, eta ondoren azken proba berriro egitea ikastaroan eskuragarri dagoen B eredia erabiliz.

Ikastaroaren edukiak eta hauekin ikasleak lortu beharreko gaitasunak:

	IKASTERO MATERIALA	EBALUAZIO JARRAIA	ARIKETAK	BIDEOAK	KASU KLINIKOA	AZKEN EBALUAZIOA
1. Belarriaren anatomia. Audiologia orokorra.	1 eta 2	1 eta 2	1			1 eta 2
2. Kanpoko belarriaren patologia.	1 eta 2	1 eta 2	2			
3. Erdiko belarriaren patologia.	1 eta 2	1 eta 2			1 eta 2	
4. Barneko belarriaren patologia.	1 eta 2	1 eta 2			1 eta 2	
5. Erizaintza jarduerak. Belarriaren kirurgia.	1 eta 2	1 eta 2		2		
6. Sudurra.	1 eta 2	1 eta 2	1			
7. Sudurraren patologia eta ebakuntza. Listu guruinetako patologia.	1 eta 2	1 eta 2				
8. Faringea eta faringearen patologia.	1 eta 2	1 eta 2	1			
9. Laringea eta laringeko patologia.	1 eta 2	1 eta 2	2		1 eta 2	

1. gaitasuna: Sudur, belarri, faringea eta laringean gertatzen diren prozesu fisiopatologikoak eta haien sintomak ezagutzea, baita osasun eta gaixotasun egoerak zehazten dituzten arrisku faktoreak ere.

2. gaitasuna: Balorazioan jasotako datuak aztertzea eta arazoei lehentasuna ematea. Erizaintza-zainketetarako teknikak eta prozedurak ezagutzea.

Zereginak:

	ARIKETAK	EBALUAZIO JARRAIA	KASU KLINIKOA	AZKEN EBALUAZIOA
1. Belarriaren anatomia. Audiologia orokorra.	10 minutu	20 minutu		60 minutu *Errepikatu azken proba lehenengoan ez gaitzekotan
2. Kanpoko belarriaren patologia.	10 minutu	20 minutu		
3. Erdiko belarriaren patologia.		20 minutu	30 minutu	
4. Barneko belarriaren patologia.		20 minutu	30 minutu	
5. Erizaintza jarduerak. Belarriaren kirurgia.		20 minutu		
6. Sudurra.	10 minutu	20 minutu		
7. Sudurraren patologia eta ebakuntza. Listu guruinetako patologia.	10 minutu	20 minutu		
8. Faringea eta faringearen patologia.	10 minutu	20 minutu		
9. Laringea eta laringearen patologia.	10 minutu	20 minutu	30 minutu	

Kronograma:

Ikaslea irakasgaia era autonomoan landu ahal izateko 10 aste beharko dituela estimatzen da, astean 4 ordu erabiliz taulan azaltzen den moduan.

	1. astea	2. astea	3. astea	4. astea	5. astea	6. astea	7. astea	8. astea	9. astea	10. astea
1. gaia										
2. gaia										
3. gaia										
4. gaia										
5. gaia										
6. gaia										
7. gaia										
8. gaia										
9. gaia										
Azken ebaluazioa										